

## EUSKALDUN BATEN PDZAK ETA PENAK

Norbaiti idazlantxo honen titulua irakurririk, irribarrerren bat edo aterako zaio. Halako tituluak beste inguru-maria batetan ikusiak eta entzunak baikara. Baina hala baldin bada ere, niri gure inguruko gizarteari begirada egin eta zenbait gertaera aztertzeke bide ematen dit.

Hori dela eta, lehenik euskaldunok ba dugula beste edo-nork bezala, gure etorkizunari itxaropenez begiratzeko esku-biderik esan behar, euskararen eta euskal kulturaren geroa ilun eta gorri ikusten baldin badugu ere.

Nire aurreko zenbait idazlan irakurri izan dituzuenok, sarri leporatu izan didazue, optimistaegi naizela edo eta lainuetan amesetan nabilela. Eta behar bada arrazoi haundia izango duzue. Orain lainu horiek hain hauskorak izanik eta amesok hain iheskorak hemen nauzue eskuetako hatzamar artetik amorraiak ihes berri egin dion arrantzalearen antzera.

Nire lanetan, besterik beste, euskarak urteotan egin duen aurrerakada eta izan duen berbizketa aipatu izan dizkizuet, eta hori aipatzean ezti-minetan pozarren izan nauzue. Orain barriz poztasun guzti horiek samintzen hasi zaizkit. Erosi berri zuen jostailua hautsi zaion umearen antzera.

Aspaldidanik aldizkari honetatik euskararen zerbitzuan jartzeko aldarrikatutako zenbait alorretan (telebistan, irrastian, administralgoan, euskalduntzean...) aurreratuz gindoazela uste izan ondoren, horra non ikusten dudaneure buma kaskar hau ames gaiztoak uxatu ezinda.

Eta bat-batean, gaztetako gertakizun bat etorri zait gogorra. Baserri giroan bizi nintzenean (halakorik ez zaigu zoritxarrez Bilbo zikin handi honetan gertatzen) jazotakoa.

Egun batez, astoa hartu eta beste auzune batetako errotara joan behar izan nuen garia ehotzen eramatera. Ordu t-erdi inguru txandan itxaron eta han nuen nire galirin zakua. Pixua zuela eta astoa errotara sartzeko agindu zidan errotariak. Eta nik ahaleginak egin arren inolaz ere ezin. Hain mantso eta esaneko zen astoak ez zuen bere belarririk ate hartatik sartu nahi. Etorri zen errotaria bera ere, baina guk *arre* esan arren berak itxuraz *iso* ulertzen zuen.

Direnak eta ez direnak egin behar izan genituen astoa barrura sartzen. Azkenen sartu genuen bai, baina burua zakuz estaldurik eta zekulako makilakadak emon eta buzten bihurtak eginik. Errotariak, berak bultza egiten zion bitartean, buztana gogor bihurtzeko agintzen zidan baina nik ezin ikusi halako egoera larrian hainbeste maite nuen asto laztana. Eta hori danoi errotariak ahalegintxo bat ez egiteagatik. Azkenean asarre bizitan halako zerbait esan nion: «urun sakuak gari sakuak bafio pixu gehiau dauko ala»? Eta berak patxadaz erantzun: «ez bana ikasi daiola urrengorako».

Guri euskaldunoi ere halako zerbait gertatzen zaigula eta nauzue. Aspaldidanik geure gurari eta asmoak ukatu ondoren beste bide batzutatik eraman nahi gaituzte, nonbait. Ematen dizkiguten hondar apurrak ere mesede hutsez edo ematen dizkigutela adierazi nahi dizkigute. Gainera, gehienetan, hemendik bost eman eta handik zazpi kendu!

Nire astoak bere arrazoiak izango zituen (oraindik ez zekien hitz egiten, oso azkarra bazen ere) errotako zulo zaratatsu eta usaintsu hartara sartu nahi ez izateko. Ez zen, nonbait, atea estuegia zelako edo. Baitzera! Arin bai arin atera zen zakua jarri genionean. Bestalde, baserriko korta alboko

gelako atea hainbat estuagoa izanik ere laster sartzen zuen bertatik bere narru sendoa batez ere erremolatxa bururen bat sumatzen zuenean!

Dudarik gabe, astoak bere askatasuna jagon nahi zuen. Ez zuen jokatu hala, zamarik ez eramatearren, oso esanekoa eta langilea zen eta. Behar bada, batzuen eritziz euskaldunok buru gogorrak izatea hortik edo etorriko zaigu. Ez gaitzen ba larritu Martin Villak eta, baserritar ezjakin buru gogor batzu garela esaterakoan. Ez omen dugu, gehiengoaren onerako diren Estatuto mailako arrazoimendurik ulertzen! Ezin ei da gurekin elkarrizketarik izan! Entzutekorik gero! Non goa ete dugu berau!

Gizon horrek, behar bada, Madril aldeko gehienek pentsatu egiten dutena (nahiz eta ez esan) aitortu egin digu. Behin batetan norbaiti entzundakoa dator kit gogora: «Batzuk mozkor direnean, edan gabe esatera ausartzen ez direnak esaten dituzte». Gure gizon hau ere, euskaldunoi digun amorruek halako bidera bultzatu du.

Nahiz eta euskaldunok, Frankoren heriotza ondoren, handia ez izanda ere, itxaropen pixkaren bat edo hartzen hasiak izan (jarraitu ere ezin genezakeen aurreko urteetako estualdi gorrietan jarraitu eta), hor joan zaizkigu itxaropenok azken hilabete hauetan pikutara.

Euskararen aide jo ta ke lanean ari garenoi, gure ibilera gizartearen abiadaz konparatuz, harraskiloak baino astiroago gabiltzala dirudigu. Bestalde, zerbait esku artean dugula uste izanarren, gure aurrerakada guztiak goitik behera eta haseratik azkenera Madriletik kontrolatuak ditugu. Nahi dutenean hor jaurlituz dizkigute airean behar asmorik eta plangintzarik ederrenan bat-bateko edozein errege-aginduren bidez.

Madrildarrok, aspaldidanik, katuek sagu gisagaixo indargeakin jokatu ohi duten eran jokatzen ari zaizkigula ematen dute. Noiz behinka, gure kexak isilerazteko edo, askatasun piskaren bat ematen digutelakoa egiten dute eta gero beste nonbaitetik aurrekoak baino lokarri sendoagoak ezarri, beti beraien menpe edukirik, era beraien erpen muga-ingurueta-

tik irteten utzi gabe. Hau, LOAPA eta halako arazo sendoak aide utzirik ere, eguneroko zenbait erabakietan ikusten dugun zerbait da.

Direla egun batzu, Zubikarai jaunak ere garbi zalatzen zuen maixuen oposoketarako diren hiru proben artean euskarazko bat bakarra baino ez zela agertzen esatean. Behar bada ez daki Zubikarai jaunak, euskarako proba bakar hori ere, hemengo agintariek, Madrilekoekin kontatu gabe ezarritako zerbait dugula, haiek ez baitute halako mugaketarik onartzen. Noizko eskuratuko dugu horrela irakaskintza euskalduna?

Euskal Herriko Unibertsitaterako irakasleen kontratazioa dela eta ere Euskal Herriko zenbait Ikastetxe Unibertsitariok grebari ekin beharko diote, Madrildarrek diru-iturriak ez dituztenez ireki nahi. Eta jakina, kontratazio multzo horretan jokoan ditugu, hainbatetan, Unibertsitatea euskalduntzeko asaturiko plangintza gehienak ere!

Hala ere zerbait egin den arlo bakarrenetarikoa irakaskintza izan dugu. Esanak esan, eremu honetan pixkanaka baldin bada ere, zenbait pausu emon direla aitortu behar. Euskarari maila handi batetan tokia egin zaio Eskola Nazionaletan eta Ikastolak ere diru-iturriak zihurtatuak ikustean sendotu egin zaizkigu, agirian behintzat.

Hala ta guztiz, hor ditugu ikastetxe pribatuak eta, euskarari oraindik tokirik egin nahi ezean eta. Beste zenbait kasutan, nahiz irakasleak ongi prestatuak ez direlako, nahiz plangintza egokirik ez dutelako edo eta behar adina ahalegindu ez direlako, nahiko gaizki ibili dira orain artean euskarako klaseok. Honetan, seguraski, zerikusi handia izango dute inguruetakoa erdal giroak, talde handietan lan egin beharrik eta halako baldintzak ere.

Komunikabide alorrean ere, eraan dira pausoren batzu baina oso geldiak. Irratiren batek nasi du goiz osorako programaketa euskaraz, baina oso gutxi dugu. Euskal telebistaren etorrera berririko atzeratu ei da, komunikabide honen eragipena hain handia izan arren. Egunkariek, euskaraz zerbait dakartenez ere, ez diote zor zaion tokirik ematen. Protestak eta izan dira baina erdi-alperrik. Behar bada, Erakunde

Publikoek, dim laguntzak banantzean, nork nola jokaten duen kontutan harturik ekin beharko diote, Euskal Herriari eskeintzen zaion zerbitzuaren arabera emanaz.

Euskal Atministralgoa, Gasteizko Jaurlaritzakoa izan ezik, hutsa dugu eta dagoen apurra bertan behera utzia. Oso gutxi egin da baztarretan euskarari benetako ofizialtasuna emateko. Arazo hau zenbait Udaletan eta tokitan gorri baino gorriago jarri zaigu. Euskaldunok ez ote dugu jestio publikoak euskaraz egiteko eskubiderik?

Aipa ditzagun hemen jazo berri ditugun gertakizun bi. Bata Durangoko Udalean gertadua duzu. EEko zinegotzi batek postua utzi nahi eta bere eskaria euskaraz aurkeztu ei zion Probintziako Hauteskundeetako Talde Arduradunari. Eta honek eskaririk onartu ez, euskaraz idatzirik zegoelako.

Hori ikusirik, Udaleko partaide batzuk erabaki zapaltzaile horren kontrako jokera agertzea eskatu zioten Udal Batzarriari. Baina, hau bai benetan harritzekoa, ez omen dute ontzat eman gaitzespen hori! Ez ete dugu, ba, euskara hizkuntza ofiziala? Hala hori propaganda hutsa edo ote da? Bigarren mailako zerbait egin nahi dula ala? Handiagorik ikustea, gero!

Bigarrena, Larrabetzuko Institutoan gertatua duzu. Atezain lanerako norbait behar eta euskarako arduradun den Goikoetxea jaunak zuzendariari euskaldun bat hartu behar zela esaterakoan honek gogor erantzun zion: «Ya venimos con discriminaciones». Eta hori, Ikastetzeko ikasle gehienak euskaldunak izanik.

Ez omen da inor hizkuntza dela eta diskriminatu behar. Eta ikasleek ez ete dute inongo eskubiderik? Edo eta erdaraz hitz egitera behartuak izatea ez ote da diskriminazioa? Gainera, postu horretarako egingo diren probetan, erdaraz egingo badira, ez ote dira euskaldunak hasera-haseratik diskriminatzen, proba horiek ikasitako bigarren hizkuntza batetan egitera behartuak izatean? Eskerrak, oraingoan, euskaldunak baino ez direla aurkeztu!

Euskaldunok geure etxean, geure herrian, diskriminaturik

aurkitzen gara, aurkitu gara, eta zerbait aldatzen ez badugu aurkituko gara. Eta hori bizitzako alor gehienetan! Den-dena erdaraz egin beharrean aurkitu gara.

Gure Euskal Herri hau halako gertakizunez beteta dugu. Eta ezin esan edo ezer egin. Laster dituzu inguruetan mehatxuka! Espainiako Konstituzio dontsuak agintzen baitu gure lur-eremuetan ere.

Eta gertakizunak aipatzen hasia naizenez, hemen duzu bukatzeko BiBoko Magistergo Eskolan oraintsu gertatua. Ezagugarri ederra izango duzu, zenbateraino gauden Madrilen menpe esku-loturik ezagutzeko.

Bilboko Magistergo Eskola honetan, azken bost urteotan gogor lan egin eta euskara toki ofizialera jasotzea lortu da. Baina oraindik zerbait erdizperdi edo zebilela hain zuzen euskaldunak karrera euskaraz egiteko eskubiderik ez zutenez, eta plangintza egokia prestatzen saiatu ginen. Ikasleok euskaraz gaiak jasotzeko erraztasuna behar zutela eta hori lortzeko ikasturtearen haserretarako Alfabetatze mailako ikastaro trinko bat jarri genuen.

Baina horra non ateratzen diguten Madrilen Errege-agindu bat selektibitatea ezarriz! Eta, noski, euskara eta hemengo egoera kontutan hartu gabe. Horren erruz' eta eragipenez, aipatutako ikastaroen martxa desegokituz aparte, aurreko urteetan Eskola honetan lortutako euskaldun ikasleen kopuruaren gorakadea ere zeharo moztu zaigu.

Ondoko datuetan ikusi ahal izango duzuenek ikaragarritzko atzerakada izan dugu. Horrela mozten dizkigute Madriletik ezertarako bide guztiak! Begira datuok:

a) *Karrera bukatuak* (orain artekoak): *euskara aukerazko asignatura*

1978/79: —35 euskaldun Alfabetatu.  
—20 Goi-mailako Euskaldunberri.

1979/80: —51 euskaldun alfabetatu.  
—16 Goi-mailako euskaldunberri.

- 1980/81: —64 euskaldun alfabetatu (hauetatik 30 Euskal Filologia eginak).  
—8 Goi-mailako euskaldunberri.
- b) *Karrera bukatzeko* (aurrikustea): *euskara nahitaezko asignatura*
- 1981/82: —107 euskaldun alfabetatu (hauetatik 36 Euskal Filologiakoak).  
—8 Mintza Praktika mailakoak (Kanpoan ikasi dute).
- 1982/83: —148 euskaldun alfabetatu (hauetatik 56 Euskal Filologiakoak).  
—18 Mintza Praktika mailakoak (gehienek kanpoan ikasi dute).
- 1983/84: —88 euskaldun: karrera euskaraz eginak (46 Euskal Filologiakoak).  
—10 Mintza Praktika mailakoak (Kanpoan ikasi dute).  
—Azkenengo talde hau Selektibitatea egin dugu. Ikusten denez horren eragipenez zeharo gutxitu zaigu euskaldunen kopurua. Selektibitatearen erruz 85/95 euskaldun geratu dira aurtengo urte honetan kanpoan.

Ikusten denez azken urte hauetan izugarritzko goraka izan dugu. Orain, barrero beherakada haundia. Argi dago nork duen zartakin-kirtena eskutan. Eta guk ixilik egon behar. Heurek omen dute gehiengoa! Nahiz eta gure artean irakasle euskaldunen premia hain gorria izan ezin ezer egin. Unibertsitateko agintariek ere ez dute ezer egin horren aurrean.

Nola pozik izan gure arteko oztopo guzti hauen artean? Ez baidigute bizitzen ere uzten! Astorik mantsoenak ere, besterik ezean, ostikoari hasten dio!

Zentralismoak lehengoan darrai. Ez du Euskal Herriaren

nortasunik onartu nahi. Gehiago esatera ausartuko nintzateke. Hemen gutxiengoa direnez, bada ezpadan edo, ongi loturik nahi ditu hemengo arazoak. Itxuretan zerbait aldatu baldin bada ere, berdintsu dirau.

Baina noiz arte?

*Patxi Uribarren*